



8.1. DIRULAGUNTZA LERROA: EMAKUMEAK: TOPAKETAK ETA GIZARTEAN PARTE HARTZEA- 2023.  
OINARRI ZEHATZAK.

LINEA DE SUBVENCION 8.1.: MUJERES: ENCUENTROS Y PARTICIPACIÓN SOCIAL - 2023.  
BASES ESPECÍFICAS.

**1.- Dirulaguntzaren xedea**

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, "Emakumeak: topaketak eta gizartean parte hartzea" Programan parte hartuko duten Errenteriako auzoetako emakume elkarteei antolatzen dituzten ekintzak diruz laguntzea. Horrez gain, horien helburuek bat etorriko beharko dute Udalaren Berdintasunerako sailak dituenekin (2023-2024 ikasturtea).

**2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua.**

Dirulaguntzaren zenbatekoa 2023 eta 2024ko aurrekontuetako partidaren kontura izango da:

- 2023 1.1330.481.01.231.50 Dirulaguntza generikoak (%50)

- 2024 1.1330.481.01.231.50 Dirulaguntza generikoak (%50)

Diruz lagunduko den lerro honetarako dagoen aurrekontua 36.000 €-koa da.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin.

**3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era.**

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute hurrengoko baldintzak bete eta hurrengoko konpromisoa hartzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak:

**1.- Objeto de la subvención**

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para la concesión de subvenciones a asociaciones de mujeres de los barrios de Errenteria que vayan a participar en el Programa "Mujeres: encuentros y participación social", cuyos fines sean acordes con los objetivos del área de Igualdad del Ayuntamiento (Curso 2023-2024).

**2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.**

El importe de la subvención irá con cargo a la partida de los presupuestos de 2023 y 2024:

- 2023 1.1330.481.01.231.50 Subvenciones genéricas (50%)

- 2024 1.1330.481.01.231.50 Subvenciones genéricas (50%)

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención asciende a 36.000 €.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.**

Podrán solicitar subvención aquellas asociaciones sin ánimo de lucro que cumplan los siguientes requisitos y asuman los compromisos siguientes:



- Emakume elkarte direnak edo auzo elkarte baten baitan dauden emakume taldeak, beti ere, auzo elkartearen baitan izan arren erabakitzeke autonomia eta askatasuna dutenean.

- Elkartearen esku hartzea Errenterian garatzea.

- Udaleko zein Eusko Jaurlaritzako Elkarteen erregistroan erregistratuta egotea.

- Berdintasun arloaren helburuekin bat egiten duten ekintzak eta ikastaroak eskaintzea.

- Taldeen arteko bilera eta lan batzorde guztietan parte hartzea.

Ezin izango da dirulaguntza hauen onuradun izan, ERREENTERIAKO UDALAK 2023 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN laugarren oinarrian adierazitakoaz gain, dagoeneko emakume elkarte bat existitzen den auzo batean jarduten duten elkarteek, beti ere, elkarte horrek aurreko atalean ezarritako irizpideak betetzen dituztenean eta Programan parte hartzeko asmoa duenean.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek ERREENTERIAKO UDALAK 2023 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN seigarren oinarrian adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengo ere aurkeztu behar dute eskaerarekin batera:

a) Eskaera egin duen elkarte edo erakundearen estatutuak, baldin eta lehendik aurkeztu ez badira edo aldaketaren bat egin baldin bada.

- Estar constituida como asociación de mujeres o como grupo de mujeres dentro de una asociación vecinal, siempre y cuando a pesar de estar en una asociación vecinal se tenga autonomía y libertad de decisión.

- El ámbito de actuación tiene que ser el municipio de Errenteria.

- Estar inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones, o en su defecto, en el Registro General del Gobierno Vasco.

- Ofertar cursos y actividades que concuerden con los objetivos del área de Igualdad.

- Participar en todas las reuniones intergrupales y en las comisiones de trabajo.

No podrán participar en este programa las entidades que no cumplan los requisitos que constan en la base cuarta de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERREENTERIA DURANTE EL AÑO 2023 o que realicen su actividad en un barrio donde ya existe anteriormente una asociación de mujeres que cumple los requisitos exigidos en los anteriores apartados y vaya a participar en el Programa.

Documentación a presentar con la solicitud:

Quienes soliciten deberán presentar con la solicitud, además de la documentación establecida en la base sexta de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERREENTERIA DURANTE EL AÑO 2023, la siguiente documentación:

a) Estatutos de la asociación o entidad solicitante, si no han sido presentadas con anterioridad o si han sufrido alguna modificación.



#### 4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Emakumeak: topaketak eta gizartean parte hartzea programetarako dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da 2023ko ekainaren 30ean.

Epe horretan zehar Berdintasun departamentura jo daiteke informazio eske (943449576 edo [berdintasuna@errenteria.eus](mailto:berdintasuna@errenteria.eus))

#### 5.- Balorazio batzordea

Dirulaguntza lerro honetako Balorazio batzordean, ERRENTERIAKO UDALAK 2023 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN Zortzigarren oinarrian zehaztutako pertsonen gain, Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetzeta eta Giza Eskubideak departamentuko arduradun teknikoa ere kide izango da.

#### 6.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

Eskabideak baloratzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

- Aurrekontuaren %40a elkarte guztien artean banatuko da denei kopuru berdina emanaz.
- Aurrekontuaren %10, Udalarekin edo tokiko eragileekin batera antolatutako jardueren eta Udalak deitutako ikasturteko koordinazio-bileretan parte hartzearen arabera. Kontutan hartuko den puntuazioa hurrengo delarik:

#### 4.- Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención para programas de Mujeres: encuentros y participación social estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 30 de junio de 2023.

Durante ese plazo se podrá solicitar información dirigiéndose al departamento de Igualdad (943449576 o [berdintasuna@errenteria.eus](mailto:berdintasuna@errenteria.eus))

#### 5.- Comisión de Valoración

La Comisión de valoración de esta línea de subvención estará compuesta, además de por las personas señaladas en la Base Octava de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2023, por la persona técnica responsable del departamento de Diversidad Cultural, Cooperación al Desarrollo y Derechos Humanos.

#### 6.- Criterios de valoración de las solicitudes.

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:

- El 40% del presupuesto se repartirá por igual a todos los grupos.
- 10% del presupuesto en función de las actividades organizadas conjuntamente con el Ayuntamiento o agentes locales y de la participación en las reuniones de coordinación del curso convocado por el Ayuntamiento. Siendo la puntuación a tener en cuenta la siguiente:

Jarduerak antolatzen baldin badituzte <i>Si organizan actividades</i>	<b>5 puntu / 5 puntos</b>
Bileretan parte hartzen baldin badute <i>Si participan en reuniones</i>	<b>5 puntu / 5 puntos</b>



- Aurrekontuaren %50a 2023-2024 ikasturtean antolatuko dituzten ekintzen edukiaren arabera izango da. Kontutan hartuko den puntuazioa hurrengo delarik:

- El 50% en función del contenido de la propuesta de actividades que se organicen durante el curso 2023-2024. Siendo la puntuación a tener en cuenta la siguiente:

<p><b>EMAKUMEEN BOTERETZEA BULTZATU EDO GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEN DUTEN EKINTZAK</b></p> <p><b>ACTIVIDADES QUE IMPULSAN EL EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES O QUE INCORPORAN LA PERSPECTIVA DE GÉNERO</b></p>	<p><b>PUNTUAK</b></p> <p><b>PUNTOS</b></p>
<p>Gutxienez 2 orduko ekintza</p> <p><i>Actividad de 2 horas como mínimo</i></p>	<p><b>1</b></p>
<p>3 ordutik 12 ordu bitarteko ekintza</p> <p><i>Actividad entre 3 y 12 horas</i></p>	<p><b>3</b></p>
<p>13 eta 32 ordu bitarteko ekintza</p> <p><i>Actividad entre 13 y 32 horas</i></p>	<p><b>5</b></p>
<p>33 eta 42 ordu bitarteko ekintza</p> <p><i>Actividad entre 33 y 42 horas</i></p>	<p><b>7</b></p>
<p>43 ordutik gorako ekintzak</p> <p><i>Actividad de más de 43 horas</i></p>	<p><b>10</b></p>
<p><b>BESTE EKINTZAK - RESTO DE ACTIVIDADES</b></p>	
<p>Gutxienez 60 orduko iraupena duen ikastaroa</p> <p><i>Actividad de 60 horas como mínimo</i></p>	<p><b>5</b></p>
<p>Bolondresak egiten dituzten ekintzak edo 60 ordu baino gutxiagokiak</p> <p><i>Actividades realizadas por voluntarias o de menos de 60 horas</i></p>	<p><b>2</b></p>
<p><b>HONEZ GAIN – ADEMÁS</b></p>	
<p>Euskeraz antolatzen bada edo euskera bultzatzeko helburua badu</p> <p><i>Si se organiza en euskera o sirve para impulsar el euskera</i></p>	<p><b>4</b></p>
<p>Ekimenaren partaide gehiengoak %33 baino gehiagoko ezgaitasuna badu</p> <p><i>Si la mayoría de participantes tienen más del 33% de discapacidad</i></p>	<p><b>2</b></p>
<p>Kultura anitzen arteko harremanak bultzatzen baditu</p> <p><i>Si impulsa la relación con diversas culturas</i></p>	<p><b>2</b></p>



Honako hauek emakumeen ahalduntzea bultzatu edo genero ikuspegia txertatzen duten ekintzen adibideak dira:

- Emakume izateagatik bizitzako etapa ezberdinetan bizi ahal dugunaren inguruko ikastaroak (Adb. Amatasuna, alarguntasuna, zaintza, amona zaintzailea, nagusitzea, maitasuna, sexualitatea, hilerokoa, menopausia,...)

- Elkartearen antolamendua, kudeaketa eta administrazioa hobetzeko ekintzak (Adb. gestiorako autonomia, jende aurrean hitz egiteko teknikak, negoziatzeko abileziak, ...)

- Emakumeen autonomia bultzatu eta ohiko roletatik haratago doazen ekintzak. (Adb. bricolage ikastaroa, teknologia berriak, DJ ikastaroa, Txalaparta, Batukada, Xakea, mendian orientatzen ikasi, bizikleta konpontzea, Lilatoian parte hartu...)

- Genero ikuspegia txertatzen dituzten ekintza kulturalak. (Adb. historia, literatura, zinea, komikigintza, argazkigintza, artea, ipuinak...). Genero ikuspegia txertatzen dutela ulertzen da arlo hauetan emakumeen esperientzia ezagutzea denean helburua.

## 7.- Kopurua zehazteko

Jarritako irizpideak bete ondoren, aurrekontuan dagoen diru guztia ez bada eman eta elkarrekin eskatutako kopurua ez bada bete soberan dagoena, 2022-2023 ikasturtean antolatuko dituzten ekintzen edukiaren arabera lortutako puntuazioaren arabera banatuko da.

Aurrekoa eginda, oraindik udal aurrekontua bere osotasunean ez bada esleitzen, berriro eragiketa berdina egingo da behar den aldi guztietan, aurrekontua bere osotasunean esleitu arte.

Estos son ejemplos de actividades que impulsan el empoderamiento de las mujeres o incorporan la perspectiva de género:

- Cursos sobre lo que podamos vivir en distintos momentos de nuestras vidas por ser mujeres (Ej. Maternidad, viudedad, cuidado, abuelas cuidadoras, hacerse mayor, amor, sexualidad, menstruación, menopausia,...)

- Actividades para mejorar la organización de la asociación, gestión y administración (Ej. Autonomía para la gestión, técnicas para hablar en público, habilidades para negociar, ...)

- Actividades que promueven la autonomía de las mujeres y van más allá de los roles (Ej. Curso de bricolaje, nuevas tecnologías, curso de DJ, Txalaparta, Batukada, Ajedrez, aprender a orientarse en el monte, arreglar la bicicleta, participar en la Lilatón...)

- Actividades culturales que incorporan la perspectiva de género (Ej. Historia, literatura, cine, comics, fotografía, arte, cuentos...). Se entiende que estas actividades incorporan la perspectiva de género cuando se trata de conocer la experiencia de otras mujeres en estos ámbitos.

## 7.- Asignación de la cuantía

Si una vez aplicados los criterios establecidos, no se hubiera asignado a las Asociaciones el total del presupuesto disponible, y no se hubiera cubierto el total de lo solicitado por la Asociaciones, el sobrante se repartirá en base a la puntuación obtenida en función del contenido de la propuesta de actividades que se organicen durante el curso 2022-2023.

Si tras dichas operaciones aún no se agota el presupuesto asignado a esta línea de subvención, se procederá a aplicar la misma operación cuantas veces sea necesaria hasta agotar el presupuesto total.



### 8.- Dirulaguntza ebazpena

Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio.

Ebazpena udal iragarki oholean eta udal web gunean argitaratuko da. Hein berean banan-banan jakinaraziko zaie dirulaguntza ukatzen zaien pertsona edo entitate eskatzaileei.

### 9.- Dirulaguntza ordainketa eta ordainketa aurreratuak.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

Dirulaguntzaren %50a, dirulaguntza ematea erabakitzen denean ordainduko da.

Dirulaguntzaren %30a, 2023ko urtarrilean ordainduko da.

Falta den dirulaguntzaren %20a, egindako gastua justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.

### 10.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzaren hirugarren ordainketa diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hori aurkezteko epe muga 2024ko uztailaren 1a izango da.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, ERRENTERIAKO UDALAK 2023 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN hamazazpigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.

b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

### 8.- Resolución de la subvención

La resolución pone fin a la vía administrativa.

La resolución se publicará en el tablón de anuncios municipal y en la página web municipal. Igualmente se notificará individualmente a las personas o entidades solicitantes a las que se deniegue la subvención.

### 9.- Abono de la subvención y pagos anticipados.

Los importes de la subvención serán abonados de la siguiente forma:

El 50% de la subvención se abonará en el momento de la resolución de la concesión.

El 30% de la subvención se abonará en enero de 2023.

Y el 20% restante, tras la presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

### 10.- Justificación de la subvención.

El tercer pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 1 de julio de 2024.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoséptima de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2023:

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.

b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.



Dirulaguntzaren eskabide ereduarekin batera doan dokumentazioa bete beharko da.

Deberá cumplimentarse la documentación que se adjunta al modelo de solicitud de subvención.

**Ohar garrantzitsua:** deialdi hau egin da ERREENTERIAKO UDALAK 2023 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

**Nota importante:** esta convocatoria deviene de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA DURANTE EL AÑO 2023. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.